

Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen I. Bilkura.

*Lankidetzaz ardatz, euskara bitarteko,
herritarra helburu*


ALDEE - UEU

Zeintzuk garen, gaur egungo egoera, nora nahi dugun joan
Eibarko Juan San Martin Udal Liburutegia



Liburutegiaren aurkezpena

- ▶ Eibarko Juan San Martin Liburutegia **1907ko apirilaren 8an inauguratu** zen bere lehenengo egoitzan (“Kontzeju Zaharra”) eta gaur egun Udaletxea dagoen tokian egon eta gero, Portaleara pasatu zen 1996an. Lehenengo solairua Liburutegiak erabiltzen du nagusiki **1996tik**. Erabiltzaile asko zirela eta, 2007an handitu egin zen, eta orain **1.200 bat m2** hartzen ditu, honela zatiturik: harrera lekua, helduentzako gela, umeentzako gela, hemeroteka gunea, lantaldeendako gela eta biltegiak eta beharginendako bulegoak.
- ▶ 2014ko urte bukaerako datuak aipatzearren, ia **128.000 bisita**, **10624 bazkide** eta **71736 tituloko** funtsa zituen urte horretan.




Liburutegiaren aurkezpena

- ▶ **41.129 dokumentu mailegatu ziren** eta hainbat ekintza antolatu ziren: lehiaketak, ipuin kontalari saioak, Munduko paisaiak kanpaina, liburutegi tailerrak, irakurle taldeak, hitzaldiak eta liburu-aurkezpenak, hizkuntzak praktikatzeko bilerak eta enplegua bilatzen ikasteko tailerrak eta hitzordu pertsonalak, gehienak aipatzeagatik.
- ▶ Ordu-tegi zabala eskaintzen dugu, **urritik ekainaren** erdialdera **asteburuetan zabaltzen** dugula (zapatu eta domeketan).
- ▶ Interneten presentzia dugu: web gunea, [bi blog](#), sare sozialetan ([Facebook](#), [Twitter](#), [Pinterest](#))



Gaur egungo egoera

- ▶ Gaur egun, Liburutegia inflexio puntu batean dago eta erronka berriak jarri dira mahai gainean aldaketak egon direlako hainbat puntutan: kulturarekiko jokaera, informazioa eskuratzeko era eta gizartearen aisialdi ohiturak.
- ▶ Momentu hau aztertu ondoren, aukera, mehatxu, indargune eta ahulguneen diagnostiko labur bat atera dezakegu



Gaur egungo egoera

Aukerak:

- ▶ Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko partaide izatea, bertan elkarlan proiektu batzuk aurrera eramaten ari dira eta.
- ▶ Liburutegia topaleku bilakatu da, birtualak ez baitu presentzialak bezain beste betetzen.
- ▶ Liburutegian materialak dohainik lortu ahal dira, eta krisialdi honetan eskertzekoa da familien ekonomia egoera nola dagoen ikusita.
- ▶ Bertako erakunde eta elkarteekin elkartasun harremanak ezartzeko aukera.
- ▶ Teknologia berriek ematen dizkiguten aukerak, jarduerak eta zerbitzuak zabaltzeko.
- ▶ Gure bezeroekin harreman estuagoak izan ditzakegu teknologia berri hauei esker.

Gaur egungo egoera

Mehatxuak:

- ▶ Liburutegiak ez dira etengabeko ikaskuntzarako gune aproposak bezala kontuan hartzen administrazioaren aldetik
- ▶ Aisialdirako gehiegizko eskaintza kulturala.
- ▶ Aurrekontuen murrizketa.
- ▶ Materialen deskarga ilegalek mailegu tradizionalaren beherakada ekarri dute.
- ▶ Liburutegia ez da informazioa lortzeko bide bakarra.

Gaur egungo egoera

Indarguneak:

- ▶ Orokorrean, liburuzainek gaitasuna dute aldaketetara moldatzeko.
- ▶ Informazio beharretan aholkatzeko eta orientatzeko gaitasuna dugu; baita informazio egokia aukeratzeko ere, erabiltzaileek horrela eskatuz gero.
- ▶ Sareko liburutegien arteko praktika egokiak; adibidez, liburutegien arteko mailegua, mailegu digitala, katalogo kolektiboa, blogen plataforma, formakuntza...
- ▶ Taldekako ekintzen harrera ona: hizkuntzak praktikatzeko bilerak, irakurle taldeak...

Gaur egungo egoera



Liburutegiak

berriak eskurapenak aipagarriak

Bookcrossing Turtziozen
Berriro topabako dituzu liburuak herriki-udea honetan. Irakurri edonon!!!

Ronda nocturna, de Sarah Waters
Eskuragarri... Ronda nocturna (Anagrama, 2007) Sarah Waters. Ronda nocturna nos cuenta la vida d

Zer da eLiburutegia?
eLiburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen plataforma bat da. Informaileen bidez eteki digita

hizkuntza
euskera
castellano

katalogoa
liburutegien katalogoa kontsultatu

harpidetza

sare sozialak

liburuklik

Mailegu digitalerako, on-line ikastaroa prest, KZguneko web orrian
Eliburutegia, mailegu digitalari buruzko on-line ikastaroa marban dago, KZguneko web orrian. Hurren

Udako ordutegia
Abentxo Zierbenako Liburutegien udako ordutegian honako hauetako diraz: Las Camerareko Liburutegi

Udako ordutegia
Mofariko Liburutegian gaurtik aurrera udako ordutegiaren hasiera gertat!

Gida turistikoak
Zure oporrik prestetan ari bazara, Eliburutegiak haribet gida maileguan eskaintzen ditu zure leial

Irene – Pierre Lemaitre
Eskuragarri... Camille Verhoeven honedantseak bultzatzen zaiton lana eta

“La lengua de los secretos”, Martin Abrisketa
Eskuragarri... Martin Abrisketa cuenta en esta novela una historia personal, la de una familia d

Senderos de gloria
Eskuragarri... Stanley Kubrickek zinemara eramaniko bertsiaren bidez ezaguna, eto agian ezagun

Mailegu digitala prestatzen
Urte honetan zehar proiektu berri eta interesgarri bat tartean jarri gara, liburu digitalaren mailegu

Liburutegi zerbitzuaren laburpena iruditan (2004-2014)
Bideo honetan azkenengo hamar urtetan Liburutegi zerbitzuak lantutako ekintza nagusien laburpena egi

“Laguntza digitala”: Ermuko liburutegian
Ermuko Udak Liburutegiak teknologia berriak, trenak mugikorak eta aplikazio informatiboen inguruko

App “liburutegiak” edo nola erabiltzea

Gaur egungo egoera

Ahuleziak:

- ▶ Aurrekontu eskasa ekintzak antolatzeko.
- ▶ Jarduerak aurrera eramateko lokalen falta.
- ▶ Lanpostuak bere mailaren azpitik baloratuta daude.
- ▶ Baliabide pertsonal gutxi.
- ▶ Erabiltzaileek dituzten iritzien eta beharren ezjakintasuna.
- ▶ Material digitalen eskaintza eskasa.

Nora nahi dugun joan

- ▶ Herritarrei kalitatezko zerbitzua eskainiko dien elkargunea (fisikoa eta birtuala) izatea da Eibarko Liburutegiaren misioa, irakurketa, etengabeko ikasketa eta kultur zabalkundea sustatu eta berak gordetzen duen fondo lokala aztertu eta ikertzeko erraztasunak emanda; era berean, informazioaren teknologietarako sarbidea duen gunea ere izan nahi du.

liburuklik



eLiburutegia



Nora nahi dugun joan

- ▶ Zerbait ikasi behar duzunean, Liburutegiak izan behar du leku fisikoa edo birtual aproposena helburu horretarako, Liburutegiko helburuetako bat **funtzio hezitzailea** da eta. Heziketa formalaren zutabea izan behar da, etengabeko formakuntza eta ikaskuntza tokia, eta alfabetatze informazionala landu behar du, informazioaren gizartean natibo digitalak ez direnak sartzen laguntzeko, batez ere baliabide edo kompetentziak ez dituztenei. Eskoletako liburutegiekiko eta ikastetxeekiko elkarlana ere bilatu behar du.



Nora nahi dugun joan

Informaziorako eta ezagutzarako sarbidea izan behar du Liburutegiak eta **balio erantsia** eskaini behar die informazioa lortzeko ohiko kanalei. Horretako:

- ▶ Erabiltzailea orientatu behar du, informazio egokia aukeratuz.
- ▶ Informazio unibertsalerako sarbidea izan behar du, batez ere bertako informazioa zainduz.
- ▶ Bertako edukiak sortu, kontserbatu eta zabaldu behar ditu.
- ▶ Kultura analogikoa eta digitala integratu behar ditu.

Nora nahi dugun joan

Autoikaskuntzarako baliabideak Interneten: Zure autoikaskuntza prozesuan baliagarriak izan daitezkeen Interneteko baliabide batzuk biltzen ditugu leku honetan.

► <http://www.netvibes.com/autodidakta>



Nora nahi dugun joan

Enpleguari buruzko Informazioa Interneten

- * Liburutegian jasotzen diren enpleguari buruzko kontsultei erantzuna eman
- * Lan eta autoenplegurako Interneten dauden baliabideak ezagutarazi

► <http://www.netvibes.com/enplegua>



Nora nahi dugun joan

- ▶ **Irakurketaren sustapena** lehenetsiko dugu, irakurketa ohiturak sortu eta sendotzeko, irakurketa konpartitzeko espazioa izan dadin, informatzeko, orientatzeko eta irakurketara sarbidea emateko edozein euskarritan.



Nora nahi dugun joan

- ▶ Liburutegia hirugarren espazioa, etxekoaren eta lanekoaren ondoren topaleku gisa. Espazio birtuala izateaz aparte, oso garrantzitsua da liburutegiko papera benetako espazioa izaten, non pertsona fisikoek elkarri eragiten dioten. Kontuan izango du pertsonak proiektu komunak aurrera eramateko edo ikaskuntza informalak egiteko besteekin elkartzeko duten beharra. Liburutegia gizarte kohesioa eratzen duen komunitatearen zentro gisa.



Nora nahi dugun joan

- ▶ **Erabilera desberdinetako espazioen integrazioa.** Liburutegiko espazioek konfigurazio malgua eta berrerabilgarria eduki beharko dute. Ikasi edo lan egiteko ez ezik beste jarduera batzuetarako ere erabili ahal diren espazioak izan beharko dira. Liburutegiak bere instalazioak, zerbitzuak edo ezagupenak gizartearen beste sektore batzuei eskaintzen dizkie, eta horiek bere lana, esperientzia edo produktuak **trukean** eskaini ahal dituzte. Biltzeko tokiak, taldekako ikaskuntza, formakuntza, etab.



Mila esker!

Eva Alberdi Zubiaurre

ealberdi@eibar.eus

liburutegia@eibar.eus

Tel. 943 708 437

